



# LOKAILLUAK



## 1. Ariketak egin baino lehen irakurri arretaz informazio hau:

Testu bat idatzi nahi dugunean ideia asko esan nahi ditugu askotan, ezta? Batzuetan ez dakigu ideia horiek nola lotu, ezta? Beste batzuetan ez dakiguna da nola hasi testuak, ezta?



Ba.....zuentzako **konponbidea** daukagu....

## LOKAILLUAK!!!!

Baina...zer dira horiek?

*Lokailuak hitz solteak dira, ideiak lotzeko balio dute eta mota askotarikoak daude.*

Gaurkoan bi motatako lokailuak ikasiko ditugu:

### HASIERAKOAK

#### **Testuak edo esaldiak hasteko balio dute**

- ★Hasteko...
  - \*Adb. Hasteko, aukeratutako herrialdearen klima azaldu behar da.
- ★Lehenik...
  - \*Adb. Lehenik, bidaiari zenbat egun emango dituzun pentsatu behar duzu.
- ★Lehenengo eta behin...
  - \*Adb. Lehenengo eta behin Eiffel Dorrea ikusiko dugu.

### IDEIA BERRIAK GEHITZEKO

#### **Idea berriak azaltzeko balio dute.**

- ★Horretaz gain,
  - \*Adb. Horretaz gain ez ahaztu Finlandian hotz handia egiten duela.
- ★Gainera,
  - \*Adb. Gainera, Errumaniara bidaiatzea erabakitzen baduzu, ikusiko duzu interes handiko herrialdea dela.
- ★Era berean,
  - \*Adb. Era berean, Londreseko jendeak ohitura dauka garraio publikoa erabiltzeko.
- ★.....ere.
  - \*Adb. Museoak eta erakusketak merkeak dira ere.
- ★.....baita ere.
  - \*Adb. Haurrak prezio bereziaren barne geratzen dira eta adinekoak (65 urtetik gora) baita ere.

## 2. Egin jarraian dituzun ariketa hauek ikasitakoa praktikan jartzeko:

### \* BETE HUTSUNEAK TAULAN DITUZUN LOKAILUEKIN

Lehenengo eta behin	lehenik
baita ere	gainera

oso garrantzitsua da herrialdea Europar Batasunean dagoen ala ez jakitea, eta hala bada noiz sartu zen jakitea . Bilaketak egiteko, interneten, bilatzailean gure herrialdearen izena idatziko dugu. Bigarrenik, Europar Batasunaren inguruan zer jartzen duen ikusiko dugu. Oso lan erraza izango da, , azken entregarako lana aurrezten ariko gara.

### \* IDATZI ZEIN DEN LOKAILU EGOKIENA ESALDI HAUETAN:

☞ **Era berean/Lehenik** haurren sarrera merkeagoa da museoan sartzeko.

☞ Sarrera arruntarekin egun osoan sartu ahal izango zara jolas parkera, **ere/horretaz gain** sarrera horrekin bi pertsonentzako menua izango duzu museoko jatetxerako.

☞ **Lehenengo eta behin / Gainera** zure dokumentazioa erakutsi beharko duzu aireportuan, gero, kontroletatik pasa beharko duzu.

### \* BETE HUTSUNEAK BEHEKO TESTU HONETAN FITXA HONETAN LANDU DITUGUN LOKAILUAK ERABILIZ (pista gisa lokailuak duen hizki bat daukazu).

Hasteko, nire bidaiaren egitaraua aurkeztuko dizuet. k, izan beharreko dokumentazioa azalduko dut, g dokumentazio hori gordetzeko gomendioak emango dizkizuet. Horretaz gain, egunero zer egingo dugun azalduko dizuet eta horren arabera maletan zer sartu e .